

KARMELDARRAK MARKINAN


1992.eko ekainaren 18an, 20,30tan, liburu mardul bat aurkeztu zen Markinako Udal Liburutegian: KARMELDARRAK MARKINAN (1691-1991). Historia eta agiriak. Liburuaren egilea Julen Urkiza Ondarroako karmeldar eta historialari handia dugu. Honen lana euskaraz atondu duena, berriz, Patxi Uribarren aramaioarra. Biak izan genituen Markinan liburuaren aurkezpenean.

Gertakari honek KARMEL aldizkarian lekutxo bat merezi zuela eta, liburuan bertan bai hitzaurrean eta bai barruan agertzen denaz eta neure gogoetaz horniturik, lantxo hau moldatzeari ekin diot.

Hiru mendetan zehar hezur-mamitu den historia eta agiriak biltzen dira liburuan, izenburuan agertzen denez. Hiru mendetako kontaketa-hari honek baditu bere argiune eta ilununeak. Baditu gertakari handi eta azpimarragarriak ere. Hauen artean hiru aipatuko nituzke: a) Karmengo komentuaren sorrera edo fundazioa, b) Frantsesada izeneko gerratea eta haren ondorengo urteak, c) berreraikuntza edo errestituzioa. Azken hau, batez ere, garrantzi eta eragin handikoa izan zen Karmeldarren Ordena osoaren historian. Horregatik agiri ugarien iturburu izan da. Liburu honetan ere, beronek hartzen du zatirik zabalena, bai historian eta baita agirietan ere.

Liburuaz kritika zehatz eta zorrotzik egitea ez dagokit niri; horretarako une eta abagunerik egokienean ere ez dut ikusten neure burua. Eritzi orokorra ematekotan, ordea, liburu bikaina, ongi bideratua eta burutua dela esan behar. Egileak lan serioa, mamitsua, sakona egin du, berak ohi duenez. Hau da: ikerlana dugu, eta ez literaturazkoa. Beraz, kontaktaren tolestura barrokoetan galdu gabe, historiari zor zaiona eta dokumentuek diotena jarri du soilik. Horregatik, honelako liburuak ez dira eskuetatik utzi gabe elaberri edo nobela bat bezala irakurtzekoak.

Hiru atal nagusi aurkituko ditu irakurleak: Karmengo komentuaren hiru mendetako historia, historia honi dagozkion artxiboetako agiriak eta azkenez argazkiak. Beste aldetik, liburuan datorren edozer aurkitu ahal izateko ere, hainbat aurkibide datoz: hasieran aurkibide orokorra, eta azken aldean




artxiboko agiriena, liburuan agertzen diren pertsona-izen guztiena, Lea-Artibaiko erlijioso karmeldarrena etab.

Honelako izenburua duen eta honelako gaia darabilen liburuaz, norbaitek izan dezake zalantzaren bat edo beste: komentuaren historia hori zer axola ote zaion herriari; barruko gauzak, komentu eta Karmeldarren Ordenari dagozkionak agertzen direla hor, herri-bizitzarekin zerikusi handirik ez dutenak, alegia... Bai, hala dirudi, baina izatez ez da hala. Liburua esku artean hartu eta gainbegiradatxo bat egitea nahiko da Karmeldarren komunitateak Markinako herri-bizitzan, Lea-Artibai osoan eta inguru zabalagoan ere izan duen eraginaz ohartzeko. Erlijioaz gainera, euskara eta euskal kultura, debekuzko garai latzetan horma zahar hauen barnean babestu zirela esan dezakegu. Guk gerra osteko albisteak ezagutzen ditugu batez ere. Garai horretan, 'bizkaitarrek' (abertzaleek) gudua galdu zuten gero, Madrilgo 'Pardokoa' zen jaun eta jabe. Euskaraz egitea pekatu zen. Abertzale-usaineko guztia debekupean jarri zuten. Geure izaeraz biluztu nahi gintuzten; asabengandik jasotakoari uko egitera behartu. Beraz, abertzaletasuna, txingarra errauspean bezala, gori-gori gorde behar zen, baina ezkutuan. Etsaien eta salatarien bistatik gordeta lan egitea zegokigun; serio eta gogor, baina era berean poliki-poliki. Kantakunbetako garaia zen.

Orduan, euskarak eta euskal kulturaren inguruko mugimendu askok, komentu barruan aurkitu zuten euren gordelekua. Horrelako ekintza batzu erlijiozkoak edo apostolutza-girokoak ziren; beste batzu, berriz, gizarte edo euskal girokoak. Hala ere, nire eritziz, haiek eta hauek ez ziren ongi bereizten, guztiak bait ziren erlijio-ikuspegitik onartzekoak. Izan ere, behartsuari, premian dagoenari laguntzea Nazareteko Jesusen doktrinan bete-betean sartzeko dena da. Besteak beste, hauek aipa genitzake: H.O.A.C. langile katolikoek taldea alde batetik eta ZERUTXU Ikastola eta honek eratzen zituen hainbat ekintza bestetik, Euskal Herriko bertsolariak urtero izaten zuten bilera ere ahaztu gabe. Karmengo komentuan eta bertako fraide baten

eraginez
sortu zen
elkar-
teetariko
bat SU-
GAR izen-
eko gazte-
taldea
izan zen.
Honen
hasierako
helburua,
gazteen
bileretan
gogoetak



eta elkarrizketak eginez, heziketa sozio-erlijioso-kulturala lortzea zen; horretarako, ohizko batzarrez gainera, hitzaldiak, jaialdiak eta abar antolatzen zituzten. Gerora, talde honen ibilbidea istilutsua gertatu zen; hala uste zuten behintzat komentuko erlijiosorik gehienek eta nagusien aginduz kanporatua izan zen...

Guzti honekin haxe esan nahi nuen: Karmengo komentuak herri-bizitzako arlo askotan, erlijio-bizitzan zeresanik ere ez, baina euskara eta euskal kulturaren inguruan ere partehartze zuzena eta garrantzitsua izan duela.

Aipatutakoak geuk ikusi eta bizi izandakoak dira. Baina lehenago ere Markinako Karmeldarretan izan dira hainbat pertsona aipagarri; batzu, Markinatik mundu zabalera joan eta Elizaren alde lan handia egindakoak (gotzain, teologo, misiolari...); beste batzuk, bertan burutu zuten lana; esaterako, euskal idazleak. Hauen artean maila bikaineko bi aipatu nahi nituzke: Frai Bartolome de Santa Teresa lehengoan artean, eta Lino Akesolo oraintsukoen artean. Frai Bartolome Etxebarriko semea zen. Komentu honetako sermolaria zen XIX. mendearen hasieran eta idazle-tituluaren jabe. Garai hartan, komentu

bakoitzean, sermolari bat egoten zen bereziki horretarako izendaturik, eta idazle bat ere bai. Liburu erlijiosoak, kateketikoak, idatzi zituen, orduko ohiturari jarraituz. Gaur egun, J.A. Mogel eta P. Añibarroekin batera, bizkaiera literarioaren sortzaileetarikotzat hartzen da.

Liburuko orrialdeetan zehar agertzen diren pertsona aipagarrien artean, ondorengo hauek lirateke benetan aipagarrienak, nire ustez: Ignacio Munibe eta Axpe Arancibia lizentziatua, Peñafloidako kondeen semea eta garai hartan Ziortzako Andre Mari Kolegiatako abata; hauxe izan genuen komentu honen fundatzailea, Avilako Teresaganako maitasunak horretara eraginik. Manuel de Santa Teresa Lazkaoko semea, Domingo de San Jose Nafarroako Gareskoa eta Pedro Jose de Jesus Maria (Alkorta) markinarra agertzen dira lehen mailan, Markinan bertan hasiera izan zuen Karmeldarren berreraikuntzan. Baina, orduko gizartean zituen ezaupide eta sona handiagatik, parte hartzerik zuzenena eta erabakiorrena Cándido Gaytán jaunak izan zuen. Honek, garai latz haietan, ez zuen onik izan Karmeldarren komentuan berriro fraideak bizitzen ikusi arte. Etsi gabe lan egin zuen, jo batera eta jo bestera; ekaitzaldietan eutsi eta barealdietan aurrera egin, bere helburua lortu arte. Liburu honen egileak behin baino sarriago aipatu zidan Cándido Gaytán-en izena urrezko letraz idatzi beharko litzatekeela. Beude hor, besterik ezean, Karmeldarren eskerrona eta historialari baten aitopen zintzoa.

Baina hiru mendetako historiaren zutabe izan diren pertsona horietaz gainera, erakunde bat ere lehen mailan agertzen zaigu: *Markinako Udala*.

Lanaren iturburua eta garapena

Honela dio hitzez hitz liburuaren egileak:

«1990. urteko azkenaldian, agian zertxobait berandu, fundazioaren hirugarren mendeurrena ospatzen zela eta, Markinako komentuaren historia idazteko gonbidapena egin

nien zenbait historiagileri. Baina, arrazoi ezberdinak zirela tarteko, ez nuen baiezko erantzunik jaso.

Ni neu, bestalde, beste argitarapen-lan batzutan buru-belarri sartuta, atean zen mendeurrenerako seriotasun eta ahalegin handiz egin beharrekoa zen lana burutzeko astirik gabe aurkitzen nintzen... Zalantza ugari izan nituen erabakia hartzerakoan. Baina, gai historikoaren bilketa-lan handiena Aita Antonio Unzuetak eta, bereziki, Aita Higinio Gandariasek egina izan ondoren, azken honek artxibo ordenatu eta katalogatu batetan jarria zegoela ikusiz, hilabete batzutan egiteko erabakia hartu nuen.

Egia esan, idazlan hau epe laburrégian burutua izan da, honako arrazoiak izan direla tarteko: mendeurrena (1991) atean izatea eta nik neuk ere zeregin horretan urteak erabili ezin izatea... eta, ondorioz, oso handia izan bada ere lanaren trinkotasuna, begibistakoak dira astiezaren mugak».

Hitzaurrearen azkenerantz, argibide jakingarriak ematen dira:

«Lan honetan agiri bidezko 1.550 aipamen jaso dira, 430 inguru hitzez hitzezko aipamenak, batzu luzeak eta besteak laburrak direla... Testu-aipamen horietarik 160 inguru jatorrizko hizkuntzan (ia guztiak gazteleraz) aurkeztu dira; beste 250 inguru euskaratuta, gehienak kontaketa-hariari estu-estu loturik ageri direlarik; eta badira, baita ere, beste 16 aipamen inguru jatorrizkoa euskaraz dutenak (...)

Euskarazko liburua

Patxi Uribarren aramaioarra dugu lan hau, orain guk eskuetan dugun eran, euskaraz jarri duena. Egilearen eskutik folioak jaso ahala, euskaraz jartzeari ekin ziola diosku berak. Hasieran 150 orrialdeko liburu txikia izango zelakoan, azkenerako 540 orrialdekoa izan... Horrek estutu zuen itzultzailea. Baina lan bikain hau buruturik eta liburu eder bihurturik ikustean, ahaztu zaizkio egiterakoan izandako buruhauste eta kezka guztiak.

Aurkezpenean berak adierazi zituen itzulpenean izandako arazo tekniko batzu. Dena dela, euskara batu erraz eta egokian, edonork ulertzeko eran, agertzen digu Patxi Uribarrenek Julen Urkizaren lan eder hau.

Biei zorionak eta eskerrona Markinako Karmenen bizi garenon izenean.

Luis Baraiazarra Txertudi



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



IZARBEL S.L. VIDEO PROFESIONAL

<p>San Miguel kalean, 14 Urrut.: 673 0509 48340 Amorebieta</p>	<p>Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut.: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)</p>
---	--

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868